



GETXO ANTIRRAZISTA

Adi zurrumurruekin! ¡Ojo a los rumores!

Udalak sustatuta, herritarrek eta gizarte-elkarteek osatutako sarearekin lankidetzan, gizartea sensibilizatzeko eta parte hartze-ko abian jarritako Zurrumurruen kontrako Estrategiak marka eta irudia estreinatu berri ditu. Sortu zenean eduki zituen helburu berberak mantenduko ditu, hau da, arrazakeria, xenofobia eta diskriminazioa prebenitzea, bizikidetzaren hobetzea, eta aniztasun kulturalaren onurak aprobetxatzea, modu horretan herritar guztien pertzepzioak, jarrerak eta jokabideak aldatzea sustatzeko.

Estrategiaren hamargarren urteurrena ospatzeko pasa den martxoaren 18an egindako urteko Zurrumurrurik ez Topaketa aukeratua izan zen etorkizunean gurekin izango den *Getxo Antirrazista, Adi zurrumurruekin!* marka berria aurkezteko. Bertan strategiaren ibilbidean parte aktiboa izan duten agente anitz ugari bildu ziren eta horietariko batzuek nabarmendu zituzten irudi be-



rriaren sendotasuna eta indarra.

Estrategiak 10 urteko bizitza du Getxon, eta pertsona ugari inplikatu eta gaitu ditu, banaka edo erakundearen ordezkari gisa (sozialak, hezkuntzakoak, kulturalak, kirolekoak, politikoak, erlijiosoak..). Horri esker, zurrumurruen aurkako agente-sare bat

sortu ahal izan da.

Helburua da pentsamendu kritikoa sustatzea eta arrazakeria errepikatzen duten estereotipo, aurreiritzi eta zurrumuru falsuen ondorio negatiboak buruz sensibilizatzea, ekintza berriak eta parte-hartzaileen bidez horiek baliogabetuz eta kultura-

aniztasunari buruzko kontakizun negatiboak zalantzan jarriz.

Irudi berriarekin berrargitaratutako informazio-triptikoei helburu horiek jasotzen dituzte, eta herritarrak gonbidatzen dituzte Estrategiak antolatzen dituen ekintzak ezagutzera eta horietan parte hartzera.

Izenaren aldaketa

Zergatik izen berria? Erreferente diren pertsonengan arreta jarriz eta haiengandik ikasiz, badakigulako ez dela nahikoa arrazistak ez izatea. Haratago joan behar da eta antirrazistak izan. Estrategia gisa lortu nahi dugun gizartearen eraldaketa-prozesu horretan parte aktiboa gara, Arrazakeriaren aurkako, eta gure auzotar atzerritar eta arrazializatuekiko zurrumurrurik, aurreiritzirik eta estereotipo negatiborik gabeko Getxo lortzeko. Irudi konprometitu da arrazakeriari eta zurrumurruei aurre egiteko. Topaketan gertatutakoari buruzko informazio gehiago: <https://labur.eus/YKvck>

Ibilbide-orrirako erronkak

Topaketan parte hartu zutenek, bizitako mugarri nagusiak ospatzeaz eta gogoratzeaz gain, etorkizunari ere begiratu zioten, Estrategiaren hurrengo garaietako ibilbide-orrira markatuko duten hurrengo erronkak zehaztuz:

- "Taldea, pertsona eta erakunde gehiagotara heltzea (kirol-taldeak, gazteak, hezkuntza-zentroak eta abar), Estrategia, partekatutako lanarekiko atxikimenduak eta esfortzua handitzen jarraitzeko".
- "Aurrez aurreko topaketetarako espazioak garatzea, arrazakeriari lotuta barneratuta ditugun gure dinamikak zalantzan jartze aldera".
- "Gure estrategia pertsonalak garatzea".
- "Heziketa emozionalerako espazioak izatea".
- "Gure ekintza antirrazistak egunerokotasunera eramatea".
- "Beste toki batzuetako jardunbide egokiak ezagutzea".
- "Beste antzeko Estrategiekin batera, nagusientzako Zurrumurruen kontrako Gailur batean parte hartzea".
- "Jarduera antirrazistak talde eragilean sartzea".
- "Beste kultura, erlijio eta hizkuntza batzuetako jendea entzutea".
- "Kalean presentzia handiagoa izatea".
- "Arrazakeriari lotuta gure udalerrian gertatzen diren egoerak identifikatzea".
- "Estrategia zeharkakoa egitea eta udal-ekintzan txertatzea".

BADAKIZU
NOLA
KONTRATATU
ETXEKO ETA
ZAINZAKO
LANGILE BAT?

Getxo

“Badakizu nola kontratatu etxeko eta zaintzako langile bat?” foiletoa

Adi zurrumurruekin! Estrategiak lanean jarraituko du informazio-, prestakuntza- eta hausnarketa-espazioak garatzeko, zurrumuru arrazisten eragina murrizte aldera.

Horren adibidea da Etxeko langileei buruzko liburuxka berria, azken hilabeteotako lanaren emaitza, Zurrumurruen aurkako talde eragilearen, Getxoko migrazioen harrerarako eta arreta emateko bulegoaren, eta Emakumeon Ahotsa, Kosmopolis eta Etxekotu gabeko emakume langileak elkarleen arteko lankidetzan eginda. Foiletoaren bitartez, informazio erabilgarria eman nahi da etxeko emakume langileak legea betez kontratatzeari buruz; halaber, mota horretako zerbitzuak ematen dituzten pertsoneri buruzko aurreiritziak desmuntatu nahi dira, bai eta etxeko emakume langile horiek gure gizartean egiten dituzten ekarpenak nabarmendu ere.



Senderismo Antirrazista

30 bat pertsonak parte hartu zuten aurreko igandean, hilak 28, mendi-ibilaldi antirrazistan, Leioako Artazako Skate Parketik Azkoriraino. *Getxo Antirrazista Adi Zurrumurruekin!* Estrategiak, Leioako Zurrumurruen kontrakoarekin batera, Getxoko Etorkinen Federazio Plataformak eta Ibilki elkarteak antolatu zuten ekimena, maiatzaren 21ean ospatutako Elkarrizketarako eta Garapenerako Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna dela eta. Parte hartzaileek inguruaz gozatu ahal izan zuten baita kultur arteko harremanak eta aniztasuna sustatu ere.

Beste saio bat erakundeetako kulturarteko ikuspegiari buruz

Kulturarteko ea zurrumurruen aurkako ikuspegiaren erronkak eta aukerak erakundeetan izango da Estrategiak datorren ekainaren 13rako, 09:30etik 10:30era, onlinen, antolatutako hurrengo jarraipen saioa. Horrela, pasa den otsailean abian jarritako proposamenari berrekingo zaio, elkarlanean aritzeko beren proiektuetan zurrumurruen aurkako nahiz kulturarteko ikuspegia txertatu nahi duten Getxoko erakundeekin. Burututako aurreko formakuntzaren ondoren, azken hilabeteotan lortutako aurrerapenak, erronkak eta hausnarketak partekatzeko aukera izango da.

Hurrengo formakuntzak

Estrategiak bere prestakuntza-saioekin segituko du uda igaro ondoren, irailetik aurrera, aurreko urteetan egindako mintegi eta saioei jarraipena emateko. Eki-men horiei buruzko informazio guztia Estrategiaren sare sozialen bidez ezagutu ahal izango da.

EKAINAK 13 JUNIO, 9:30 - 10:30

ONLINE

JARRAIPIEN ETA PARTEKATZE SAIOA
"Kulturarteko eta zurrumurruen aurkako ikuspegiaren erronkak eta aukerak erakundeetan"

SESIÓN DE SEGUIMIENTO Y COMPARTIRES
"Retos y oportunidades del enfoque intercultural y antiRumores en entidades"

IZEN EMATEAK
INSCRIPCIONES
antirumores@getxo.eus
662 425 662

f /Antirumores

@antirumores_getxo